



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

I. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2015eko maiatzaren 13, 14 eta 15
Durango, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

INGENIARITZA ETA ARKITEKTURA

Epai-prozesuetan peritatze
arkitektonikoen kasuistika

I. Leon

685-689 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.i.94>

ANTOLATZAILEA:



BABESLEAK:



eman ta zabal zazu



LAGUNTZAILEAK:



Epai-prozesuetan peritatze arkitektonikoen kasuistika.

Leon I.

*1 Donostiako Arkitektura Goi Eskolaren Arkitektura Saila,
2 Donostiako Unibertsitate Eskola Politeknikoa, Eraikuntza Graduko Koordinatzailea.
inigo.leon@ehu.es*

Laburpena

Auzi prozesuarekin erlazionatutako peritatze arkitektonikoen kasu ezberdin eta ugarien azterketak balio digu, alde batetik, garatzeko adituen peritatzea eta prestatzeko ahozko bistaren defentsa; eta, bestetik, ulertzeko garrantzi handiko osagai batzuen ikasketarako interesa duten alderdiak.

Gatazka baten ondoren, prozesu osoen azterketatik abiatzen gara; hau da, gutxienez, existituko da izendapen judizialeko peritatze bat eta prozedura amaitzen duen sententzia bat. Orduan, epaitza aztertzen da, eta peritu judizialaren irizpenarekin duen lerrokatzea edo ez, peritu arkitektoaren ardura albo batera utzi gabe, noski.

Hitz gakoak: peritatze arkitektonikoak- peritu judiziala- peritu arkitektoa.

Abstract

The analysis of a wide range of architectural expertise cases, related to the judicial process, helps us to understand those aspects of interest for the study of certain elements of great importance, both for the preparation of expert opinion and to his defense at the hearing.

After a dispute end in judgment, we'd start to analyze the complete processes, which may include, at least, the valuation of judicial appointment, and the expert opinion commissioned by the parties. In these processes, it is analyzed whether there is alignment between the verdict and the ruled by the court expert, without neglecting the responsibility of the expert architect.

Keywords: Architectural expertise/ court expert /expert architect

1. Sarrera eta motibazioa

Arkitekturako ikasketak burutu dituztenek (Goi Mailako Arkitektoek, Arkitekto Teknikoek), duela gutxi arte, haien ikas kredituen artean, ez zuten peritatze edota irizpen txostenekin erlazionaturiko gairik. Arkitektura, Hirigintza eta Eraikuntzarekin erlazioa duten alderdi legalak aztertzen baziren ere, ez zuten peritatzeei zuzenduriko berariazko edukirik.

Agerikoa da arkitekto oro ezin aritu daitekeela peritu on bat bezala; izan ere, peritu ona izateko behar diren jarrera konkretuak (irizpide bat egiteko teknika menperatu, ahozko bista batean parte hartzeko gaitasuna izan) ez dira arkitekto profesional guztiengan ematen eta, askotan, eskamendu luzearen ondorioz baino ez baitira lortzen .

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Ez dezagun ahantzi, askotan, arkitekto perituak ohituta daudela, bere arloko profesional onak diren heinean, lanbide horren "arauen" erabilpena; baina, horrek ez dakar berekin, beti, epai-prozesuak ezartzen dituen arauak ezagutzea (edota haiekin ados izatea).

Arkitekto on oro ezin izan daiteke peritu ona; baina peritu on guztiek izan beharko lukete bere lan-arloko profesional onak. Epai-perituen zerrendek, haien kalitatea bermatzeko hainbat baldintza finkatzen zituzten, baina kompetentzia librea jotzen duten lege berriek berme hori murrizten dute; eta, beraz, edozein arkitekto (egoki prestatuturikoak zein beste edozein) alderdi bateko peritu nahiz epai-peritu izateko aukera izango du..

Ikerketa honen helburua, peritu izango diren arkitektoei lagungarri izango zaizkien hainbat irizpide eskaintzea da, eta bereziki aztertutako kasu ezberdinetan agertzen diren okerrak eta gabeziak zeintzu diren erakustea, hauek berriro eman ez daitezen.


3. Ikerketaren muina

44 gatazka prozesu oso, eta adituen 81 txosten ezberdinen irakurketa eta antolakuntza egin ondoren, Perituen aktibitatea aztertuta, hainbat atal ezberdinek duten eragina antolatuz bideratu da ikerketa.

Ezinbestekoa izan da gatazka kasu bakoitzaren kronologia fluxu-grama patroï bat asmatu eta eredu hori jarraituta guztiak irizpide komun batekin egokitzea, bertan, peritazio, demanda-erantzun eta sententzia ezberdinen arteko erlazioa bide onetik ulertzeko. Fluxu-grama hauetan, kolore ezberdinak garrantzia hartzen dute, hara nola: gorriak sententzia azaleratzen du; urdin argiak peritatze judiziala; berdez adituen beste peritazio eta txostenak; horiak demandak eta kakiak demanda erantzunak, besteak beste.


Honela kasu bakoitza tipifikatu eta sailka daiteke, sortzen diren “argazki koloretsu” ezberdinen arteko konparaketa eginaz.

1. irudia. Peritazio eta Sententzia bakarreko, gatazkaren kronologia fluxu-grama



Fluxu-grametan koloreak duten garrantzia azpimarratzeko, barneko testuen bereizmena nahita baztertu da, testuak ez dutelako arreta bideratu behar.

2. irudia. Peritazio eta Sententzia anitzeko, gatazkaren kronologia fluxu-grama



3.1 Perituaren aurre kondizionateak

Peritu guztiak gaude baldintzatuak peritatzeko bat idazten hasten garenean. Kontrakoa uste duenak, horren kontziente ez delako baino ez da. Baldintzatu izatea, berez, negatiboa da, baina okerrena norberak dakarren baldintzapan hori hor dagoela ez jakitean edo onartzean datza.

Baldintzapanek osagai ugari ditu, etab bi azpitaldetan sailka daitezke:

- Baldintzapan kontzienteak
- Baldintzapan inkontzienteak

Gure aurretiko baldintzapanek onartzea zaila izaten da, perituak ez baitu onartzen bere burua "baldintzatu" egotea. Hala ere, baldintzapan beti existituko da, eta horren aurka borrokatzeak ez du zentzurik; izan ere, ditugun aurretiko baldintzapanek ezagutzen ditugun neurrian, haien eragina murriztuko da irizpide txostena egiterakoan.

3.2 Hizkera

Epai-prozesuan, eragile bakoitzak bere hizkuntza propioa erabiltzen du eta, oro har, besteeziko desberdina. Garrantzitsua izango da, beraz, perituak hizkuntza horien guztien ezaugarriak ezagutzeko, eta haien eraginetik at mantentzea.

Dena den, perituaren hizkerak soila, argia eta ulergarria beharko luke izan; azken finean, hartzailak ez dira gaian adituak izaten, eta askotan, epai-gaia ere ez dute egoki ezagutzen.

Perituaren araua da ematen duen informazioa (idatzizkoa nahiz grafikoa) egiazkoa, objektiboa, arrazoitua izatea. Batzuetan, alderdi batek kontrataturiko perituek ikuspegi hori galtzen dute, eta elementu horietakoren bat galtzen dute beren bezeroen interesetara hurbiltzeko.

3.3 Egiatasuna

LEC-eko 335.2 artikulua araberak, perituak behartuta daude beti egia esatera eta beren berezko aktibitateen zina onartzera. Beraz, kontrako alderdiko irizpideak indargabetzeko darabiltzaten argudioak teknikoak eta zehatzak behar dute izan, inoiz egia estali gabe; nahiz eta, horren ondorioz, irizpidea egiteko agindua eman dien alderdia kaltetu.

Hori bai, egiaren kontzeptua, prozesu judizialean, ez dator bat kanon konkretu batekin. Prozesuaren jatorria gertakizun batetiko ados ez dauden bi alderdien arteko liskarra izaten da. Arazoa ez da izaten, bada, gertaera ezberdinak egotea, baizik eta gertakari horiek ikusteko ikuspegi desberdinak izatea (bai interes ekonomikoen ondorioz bai gure izaerak gertakizun horiek modu diferente batean ikustarazten dizkigulako).

Peritua egiatia izan behar da eta argi izan behar du bere aktibitatearekiko erantzukizuna duela. Bere irizpidea dela eta, alderdietako batek edo epaileak ulertuko balu perituaren parte-hartzea desegokia izan dela, perituak ondorioak jasan beharko lituzke.

4. Ondorioak

Ez da menperatzen berariazko legedia (Prozedura Zibilaren Legea <P.Z.L>, Prozedura Kriminalaren Legea <P.K.L>, eta erlazioa duten beste hainbat) .

Ez da ezagutzen prozesu judizialaren funtzionamendua.

Ez dago nahikoa eskarmentua epaiketegi dagokionean: maneiatu beharreko denborak, parte hartzaileekiko tratua, joko arauak...etab. Eta, dudarik gabe, ez da menperatzen eztabaida-leku konkretu horri dagokion ahozketasuna.

Arkitektoak “arauak dioena betetzera” ohituta daude, ez “iritzia ematera”. Agindutakoa betetzeko, arau zehatzak daude (Eraikuntzaren Kode Teknikoa...etab) eta arau horiei heldu behar zaie. Eginkizuna objektiboa da, eta nahikoa izaten da “betetzen da” moduko esaldiak erabiltzea. Iritzia ematea hareago doa: gehienetan ez dago bete beharreko arau argi bat, ez da nahikoa arauak betetzen diren ala ez esatea, eta datu objektibo eta neurgarriak aurkeztu behar dira.

Teknikoek, askotan bi kontzeptuak nahasten dituzte, eta bien arteko desberdintasuna argi izan behar da. Arkitektoak bezero batentzako lan egiten duenean, arauak “bete” behar ditu hura pozik izan dadin; iritzia ematen duenean, berriz, zuzen jokatu behar du, nahiz eta horren ondorioz bere bezeroa kaltetu. Ulertu behar dugu egiaren adiera berri baten aurrean gaudela. Hirigintzan, egiazkotasuna zehatza da, eta bere gabeziak ez du zentzurik. Oinarria araua betetzen dela arrazoitzea da. Epai-prozesuan, aldiz, gutxienez 3 egia topatuko ditugu: auzi-jartzailearena, mandatatuarena, eta benetan gertatutakoa. Kasu horretan, egia bakartzat hartzen badugu, bezeroekiko eta letraduekiko erlazioa zaildu baino ez dugu egingo.

Ez dugu iritzi bat defendatzeko ohitura, eta are gutxiago besteen iritzien aurka joatekoa. Uste dugu gure iritzia bakarra izango dela, eta ez dugu bidezko ikusten haren aurkako iritzia agertzea. Abokatuak beste modu batera aritzen dira: besteen erabakiei aurka egitera, “legez kanpo” dauden eginkizunak defendatzera eta beste abokatuen alde nahiz aurka erraztasunez aritzera ohituta daude; baita, ondorioz, inongo buruhausterik ez izatera ere.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Arkitekturaren munduan, eta nola ez, peritu adituen ardura eta betebeharren esparruan sortzen ari diren lege berrien eta arauen aldaketa ezberdinek sortzen dituzten inaktuak aztertzea.

Hauetatik abiatuz, orain arte garatutako azterketan lortutako ondorioak egokitzea edo eta osatzea litzateke.

6. Erreferentziak

Borrell, A. (2002): *Los arquitectos peritos en asuntos judiciales y el nuevo marco legal: la LOE y la LEC*. COAM, Madril.

Font, E. (2002): *El dictamen de peritos y el reconocimiento judicial en el proceso civil*. Ed. La Ley. Madril.

Huete, R. (2009): *Criterios y recomendaciones para la elaboración del dictamen técnico de un edificio*. Ed. COA Sevilla.

Leon, I. (2014): *Análisis de casuística de peritaciones arquitectónicas en procesos judiciales*. Tesia UPV-EHU. Donostia.

Sardiza, J. (2005): *Guía del arquitecto perito*. Ed. Fundación COAM, Madril.

7. Eskerrak eta oharrak

Lan hau, 2014ko ekainak 6ean, Arkitektura Sailean, Ideia Forma eta Materia programaren barnean, Bikain Cum Laude kalifikazioa jasotako “Análisis de casuística de peritaciones arquitectónicas en procesos judiciales” tesitik eratorria da.

Egileak, esker ona adierazi nahi dio nire tesi zuzendari izandako Jose Antonio Pizarro Asenjo Doktore Arkitektoari, hain atsegina egin zaidan ikerlan honetan irakatsi didan guztiagatik eta nireganako izan duen adeitasunagatik.